**2009ko ABUZTUAREN 20ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 20 DE AGOSTO DE 2009

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES**:**
**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU (11. puntuan), ALFREDO GOYENECHE INÉS, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**Mª SOL M. TABERNA IRAZOQUI (oporrak** / vacaciones**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**
**Eguna: 2009-08-20**
**Ordua: 20:40**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.
Día: 20-08-2009
Hora: 20:40
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2009ko uztailaren 23an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 23 de julio de 2009, por unanimidad SE APRUEBA

**2.- TABLAJEROBAITAN (291. LUR-ZATIAN) UDAL PLAN OROKORRA ALDAKETA XEHEKATUA EGITEKO HASIERAKO ONESPENA EZ ONARTZEA: PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL**

2.- DESESTIMACIÓN APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN TABLAJEROBAITA (P. 291): PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.

***Idazkariak espediente hau azaldu ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa beterik, honako erabakia hartu dute:***

*Tras la explicación del expediente por la secretaria, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Tablajerobaita eraikian (291. lurzatian) Udal Plan Orokorraren aldaketa xehekatua egiteko eskaera, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.k sustatua.**

Vista solicitud de modificación pormenorizada del Plan General Municipal, en el edificio de Tablajerobaita (parcela 291), promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.

**Dokumentazioa: 9 etxebizitza eta 13 garaje berritzeko proiektua eta Berako Udal Plan Orokorraren Aldaketa Xehekatua, Juan M. Erice Zunzarren arkitektoak eginak eta 2008ko irailaren 22an eta 2009ko martxoaren 11n, hurrenez hurren, Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsiak.**

Documentación: Proyecto de rehabilitación de 9 viviendas y 13 garajes y Modificación Pormenorizada del Plan Municipal de Bera, redactados por el arquitecto Juan M. Erice Zunzarren y visados por el Colegio de Arquitectos el 22 de septiembre de 2008 y 11 de marzo de 2009, respectivamente.

**Ikusirik, horri buruz udal arkitektoak eta Idazkaritzak eginiko txostenak, 2009ko abuztuaren 4 eta 11koak.**

Vistos informes realizados por el arquitecto municipal y Secretaría al respecto, de fechas 4 y 11 de agosto de 2009.

**Kontuan hartuz, aldatu nahi den eraikia katalogatua dagoela eta Udalak ez duela egokia ikusten hori aldatu, edo eraikia ordezkatu eta orain dauden lerrokadurak kanbiatu.**

Teniendo en cuenta que el edificio que se pretende modificar está catalogado y el Ayuntamiento no estima adecuada su descatalogación ni su sustitución ni la modificación de las alineaciones actuales.

**Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/02 Foru Legearen 74. artikuluarekin bat etorriz.**

De conformidad con el artículo 74 de la Ley Foral 35/02 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**Gehiengo osoz, ,ERABAKI DA:**

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

**1) PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.-k aurkeztutako Tablajerobaita eraikian (291. lur-zatian dagoena) Udal Plan Orokorraren aldaketa xehekatuaren hasiera bateko onespena ez onartzea lehen emandako arrazoiengatik.**

**2) Erabaki hau interesatuari bidaltzea.**

1) No aprobar inicialmente la modificación pormenorizada del Plan General Municipal en el edificio Tablajerobaita (parcela 291) presentado por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L., por las razones antes expresadas.

2) Remitir este acuerdo a la interesada.

**3.- LUR EZ URBANIZAGARRIAN UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA BEHIN BEHINEKOZ ONESTEA.**

APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN SUELO NO URBANIZABLE.

*Idazkariak espedientea azaldu du eta zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Alkatearena ezik abstenitu delako espedientean*

*La secretaria explica los pormenores del expediente y con el voto a favor de todos los concejales salvo el del Alcalde que se abstiene*

***interesatua baita., legeak eskatutako gehiengo osoa beta izanik, honako erabakia hartu dute:***

*por ser interesado en el expediente, con el quórum de la mayoría absoluta exigido legalmente, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Lur ez urbanizagarrian Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea egiteko espedientea.**

Visto proyecto de modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Suelo no urbanizable del Plan General Municipal.

**Proiektuak:**
**- Hasiera batez onetsia: Jabier Lekuona Errandonea arkitektoak eta Felipe Saragueta Irazoki abokatuak egina, 2008ko urtarrilaren 31koa**

Proyectos:
- Aprobación inicial: redactado por el arquitecto Jabier Lekuona Errandonea y el abogado Felipe Saragueta Irazoki de fecha 31 de enero de 2008.

**- Behin behinekoz onespenerako: Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina, 2009ko otsailaren 3koa**

- Para aprobación provisional: Redactado por el arquitecto Xabier López de Uralde de fecha 3 de febrero de 2009.

**2008ko otsailaren 21ean Udalbatzak espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

Con fecha 21 de febrero de 2008 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

**Hasiera bateko onespenaren ondoren jendaurreko epean alegazio bat aurkeztu zen.**

En el plazo de exposición pública posterior a la aprobación inicial se presentó una alegación.

**“Confederación Hidrográfica del Cantábrico (lehen, del Norte)” delakoak aldeko txostena, (A/31/02526), eman zuen.**

La Confederación Hidrográfica del Cantábrico (antes, del Norte) ha emitido informe favorable (A/31/02526).

**Nafarroako Gobernuaren Hirigintza eta Lurraldearen Antolamendu Zerbitzuak emandako txostenak, 2008ko maiatzaren 12koak eta horrekin batera bidalitakoak, Landa Garapeneko eta Ingurumenerako Departamentuaren Oihanak Kudeatzeko Atalarena 2008ko maiatzaren 13koak, hasiera batez onartutako proiektuari zenbat aldaketa egin dizkioten.**

El informe emitido por el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo de 12 de mayo de 2008 y el que se adjunta a éste de la Sección de Gestión Forestal del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente de 13 de mayo de 2008 han introducido diversos cambios al proyecto aprobado inicialmente.

**Hori dela eta, 2009ko martxoaren 24an Udalak egindako osoko bilkuran, aurkeztutako alegazioa onetsi eta Lur ez urbanizagarrian Udal Plan Orokorraren aldaketa, antolamendu egituratzaileko determinazioena, berriro jendaurrean jartzea erabaki zuen.**

Por ello, el Pleno en sesión celebrada el 24 de marzo de 2009 aprobó la alegación presentada y acordó exponer nuevamente al público el proyecto de modificación de las determinaciones estructurantes del Suelo no Urbanizable.

**Jendaurreko epe honetan 4 alegazio aurkeztu dira.**

**Ikusirik, alegazio hauei buruz udal arkitektoak eginiko txostena. 2009ko abuztuaren 17koa.**

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikulu batzuekin bat etorriz.**

**Gehiengo osoz, ERABAKI DA:**

**1) Lehen aipatutako udal arkitektoak abuztuaren 17an eginiko txostena onetsi eta agertzen diren arrazoiengatik alegazioei erantzutea. Beraz, Luis Aguirre Aguirrek eta Julian Lekuona Marticorenak aurkeztutako alegazioak onartu dira eta Fernando Boan Gonzalek aurkeztutako ez, Mª Concepción Ugartemendiarena aldaketa honetan sartua dagoelarik.**

**2) Lur ez urbanizagarrian Udal Plan Orokorraren aldaketa, antolamendu egituratzaileko determinazioena, Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina eta lehen aipatua, behin behineko onestea, lehen onartutako alegazioekin.**

**3) Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura behin-betiko onar dezan espediente osoa bidaltzea.**

**4) Erabaki hau dagokien arkitektoaren txostenaren kopiarekin batera bidaltzea alegazio aurkeztu dutenei.**

**4.- “SANTA BARBARA”, “GONDENDIA-**

En este nuevo plazo de exposición pública se han presentado 4 alegaciones.

Visto el informe del arquitecto municipal sobre dichas alegaciones, de 17 de agosto de 2009.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Aprobar el informe del arquitecto municipal de 17 de agosto, antes citado, y contestar a las alegaciones según las razones expresadas en el mismo. Por lo que se aceptan las alegaciones presentadas por Luis Aguirre Aguirire y Julian Lekuona Marticorena y no se acepta la de Fernando Boan Gonzalez, siendo que la de Mª Concepción Ugartemendia está contemplada ya en esta modificación.

2) Aprobar provisionalmente la modificación de las determinaciones de ordenación estructurante del Suelo no Urbanizable del Plan General Municipal, redactada por el arquitecto Xabier López de Uralde, antes reseñada con la inclusión de las alegaciones aceptadas.

3) Remitir el expediente completo al Departamento de Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva.

4) Remitir a los alegantes este acuerdo junto con la copia del informe correspondiente del arquitecto municipal.

4.- SUBASTA FORESTAL LOTES EN

**GA" eta "IBARDIN"-go OHIAN-APROBETXAMENDUEN ENKANTEA.**

"SANTA BARBARA", GONDENDIAGA" e "IBARDIN".

***Idazkariak espedientearen berri eman du eta, aho batez, honako erabaki hartu dute:***

*La Secretaria informa sobre el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, "Santa Barbara", "Gondendiaga" (2) eta "Ibardin" parajeetako oihan-aprobetxamenduen espedientea.**

Visto expediente de aprovechamientos forestales en los parajes de "Santa Bárbara", (2) "Gondendiaga" (2) e "Ibardin".

**2009ko maiatzaren 20an Udal Batzarrak eginiko bileran oihan-aprobetxamendu hauen enkantea hutsik uztea eta % 20 merkeago bigarren enkantea egitea erabaki zen.**

El Pleno en sesión celebrada el 20 de mayo de 2009 acordó declarar desierta la venta en subasta pública de los aprovechamientos forestales antes citados y, realizar una segunda subasta con el 20% de rebaja.

**Ikusirik, joan den uztailaren 7ko Kontratazio Mahaiaren akta non enkante honetan Donato Larretxea eta Maderas Leonet s.l. enpresak onartzea eta behar den dokumentazio administratiboa ez aurkezteagatik Berdabio Basogintza s.l. eta Ohian Zerbitzuak s.l. enpresak ez onartzea erabaki zituen.**

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 7 de julio en la que se acuerda admitir en la subasta a las empresas Donato Larretxea y Maderas Leonet s.l. y no admitir a las empresas Berdabio Basogintza s.l. y Ohian Zerbitzuak s.l. por no haber presentado la documentación administrativa exigida.

**Ikusirik, joan den uztailaren 16ko Kontratazio Mahaiaren akta, non aprobetxamendu hauen 3. eta 4. loteak Maderas Leonet s.l. enpresari behin behinekoz esleitzea eta nahiz 1. nahiz 2. lotea hutsik uztea erabaki zituen.**

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 16 de julio en la que se acuerda adjudicar provisionalmente los lotes nº 3 y 4 de los aprovechamientos forestales de esta subasta a la empresa Maderas Leonet s.l. y dejar desiertos los lotes 1 y 2.

**Izanik, sexteo-epean ez dela hobekuntza ekonomikorik aurkeztu izan.**

Siendo que en el plazo de sexteo no ha sido presentada mejora económica alguna.

**Izanik, baldintza administratiboen pleguaren 10. oinarrian jarritako dokumentazioa Maderas Leonet s.l. enpresak aurkeztu duela.**

Teniendo en cuenta que la empresa Maderas Leonet s.l. ha presentado la documentación exigida en la cláusula 10 del pliego de condiciones administrativas.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) Berdabio Basogintza s.l. eta Ohian Zer-**

1) Inadmitir a las empresas Berdabio Basogintza s.l. y Ohian Zerbitzuak s.l. por no haber

**bitzuak s.l. enpresak behar den dokumentazio administratiboa ez aurkezteagatik ez onartzea**

**2) 1. eta 2. loteari dagokionez enkantea hutsik uztea.**

**3) Enkante honen 3. eta 4. loteak eskainitako kopuruetan, hau da, 13.000 eta 20.850 eurotan, (BEZ gabe), MADERAS LEONET S.L. enpresari esleitzea.**

**4) Esleipen hau, Nafarroako Gobernuko Biodibertsitatea Babesteko Zerbitzuaren baldintza tekniko eta Udalak onartutako baldintza-pleguari jarraikiz izanen da. Baldintza-plegu hauek akordio honekin batera bidaliko zaizkio interesatuari.**

**5) Baldintza administratiboen 11. klausulari jarraikiz esleipen hau jasotzean eskainitako prezioaren % 25a ordaindu behar duela esleipendunari adieraztea.**

**6) Era berean, 4. klausularen arabera ohian aprobetxamendua hasi baino lehen esleipen-prezioaren %35aren abala aurkeztu behar dutela gogoraraztea.**

**7) Erabaki hau Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Oihanak Kudeatzeko Atalari, aurkeztutako enpresei eta esleipendunari jakinaraztea.**

presentado la documentación administrativa exigida.

2) Declarar desierta la subasta respecto a los lotes 1 y 2.

3) Adjudicar a MADERAS LEONET S.L., en las cantidades ofertadas de 13.000 y 20.850 euros (sin IVA), los lote nº 3 y 4 de los aprovechamientos forestales de esta subasta.

4) Estas adjudicaciones se hacen de acuerdo al pliego de condiciones técnicas del Servicio de Conservación de la Biodiversidad del Gobierno de Navarra y al aprobado al efecto por el Ayuntamiento, cuyas copias se adjuntarán a la notificación de este acuerdo.

5) Comunicar a la empresa adjudicataria que de acuerdo con la cláusula 11 del pliego de condiciones administrativas deberá realizar el pago correspondiente al 25% del precio ofertado al recibo de esta adjudicación.

6) Igualmente, recordarles que según la cláusula 4 deberán presentar aval del 35% del precio de licitación antes del inicio del aprovechamiento.

7) Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria, a las empresas participantes y a la Sección de Gestión Forestal de la Dirección General de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra.

**5.-LANKIDETZA-HITZARMENA: BERAko GURE TXOKOA ELKARTEA-UDALA**

5.- CONVENIO DE COLABORACIÓN: ASOCIACIÓN GURE TXOKOA DE BERA-AYUNTAMIENTO

***Jon Abrilek azaldu du Bandarekin sinatutako hitzarmena bera dela, lehen sinatutakoari urteroko luzapenarena gehitu zaiola hori agertzen ez baizen.***

*Jon Abril explica que es el mismo convenio que el firmado con la Banda, que se le ha añadido al anterior la prórroga anual que no contemplaba.*

***Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Seguidamente, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Berako Gure Txokoa Elkartea eta Udalaren artean sinatzeko Lankidetza-Hitzarmenaren testua.**

Visto texto del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento y la Asociación Gure Txokoa de Bera.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) Aipatutako komenioa onestea eta Berako Gure Txokoa Elkartearekin sinatzea.**

1) Aprobar el citado convenio y proceder a su firma con la Asociación Gure Txokoa de Bera.

**2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

**6.-LANKIDETZA-HITZARMENA: BERA-ko ABESBATZA-UDALA**

6.- CONVENIO DE COLABORACIÓN: CORAL DE BERA-AYUNTAMIENTO

***Honetan lehengo gauza bera denez, aho batez, erabaki hau hartu dute:***

*Como es el mismo caso que el anterior, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Berako Abesbatza eta Udalaren artean sinatzeko Lankidetza-Hitzarmenaren testua.**

Visto texto del Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento y la Coral de Bera.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) Aipatutako komenioa onestea eta Berako Abesbatzarekin sinatzea.**

1) Aprobar el citado convenio y proceder a su firma con la Coral de Bera.

**2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

**7.- PIO BAROJAREN LIBURU BILDUMAREN DOHAINTZARI BURUZKO UDAL KONPROMISOA.**

7.- COMPROMISO MUNICIPAL SOBRE DONACIÓN DE COLECCIÓN DE LIBROS DE PIO BAROJA.

***Pertsona bat agertu dela Pio Barojaren liburuen bilduma Udalari emateko asmoz Alkateak azaldu eta, segidan, berak prestatutako proposamena hori onartzeko irakurri du.***

*El Alcalde explica que una persona ha ofrecido la donación de una colección de libros de Pío Baroja y, seguidamente, lee la propuesta para su aceptación.*

***Jon Abrilek zera dio:***
***Hagitz interesantea iruditzen zaio baina konpromisoa hartu baino lehen informazio gehiago eskatu behar da. Liburutegian Pio***

*Jon Abril manifiesta lo siguiente:*
*Le parece muy interesante pero antes de comprometerse se debe pedir más información. En la biblioteca ya hay una colección del*

***Barojaren bilduma badago eta, ongi baloratzeko gastua eskaintzen duten bildumaren inbentarioa eta liburuen egoera jakin behar da.***
***Hondatutako liburuak berritze lanari buruz Nafarroako Gobernuaren sarean kontsultatzea merkeagoa ateratzen ahal delako.***

***Hori dela eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

**Udalari suposatzen ahal zaion gastua jakiteko Pio Barojaren liburu bildumari buruz informazio gehiago (inbentarioa, liburuen egoera, etabar) eskatzea.**

*Pío Baroja y para valorar bien el gasto que puede suponer se debería disponer de un inventario y conocer la situación en que se encuentra la colección.*
*Sobre la renovación de los libros estropeados consultar en la Red del Gobierno de Navarra porque saldría más económico.*

*Así pues, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Solicitar más información sobre la colección de Pío Baroja ofrecida (inventario, situación de los libros, etc.) para poder calcular el gasto que le supondría al Ayuntamiento.

**8.- E.T.A ERAKUNDEAK BURGOSEN ETA PALMA NOVAN EGINDAKO EKINTZEN AINTZINEAN, BERAKO EA, EAJ ETA ARALARREN MOZIOA.-**

***Jon Abrilek mozioa irakurri ondoren, bozketa egin da honako emaitza izanik:***
***5 boto alde: EA, EAJ eta ARALAR***
***4 abstentzio: Alkatea eta gainontzekoak.***

***Hori dela eta, mozioa onartu dute honako testua izan delarik:***

**Uztailaren 29 eta 30ean Burgosen eta Mallorcan ETAk egindako atentatuen aitzinean, bi hildako eragin zituztenak, EA. EAJ eta Aralarrek aurkeztutako mozioa:**

**1.- Bi ekintza armatu horiekiko gure gaitzespena eta kondena osoa. Aldi berean gure elkartasuna eta babesa erahildako bi pertsonen familiei, hurbilekoei eta lankideei eta baita bi atentatu horietan kalteak izan dituzten pertsonei ere.**

**2.- Euskal herritarren zein abertzaleen gehiengoak berriz ere aldarrikatu egiten diogu ETAri aldebakarreko eta behinbetiko etena indarkeriaren erabileran, inolako baldintzarik edo ordainik gabe.**

8.- MOCIÓN DE EA, EAJ y ARALAR DE BERA ANTES LOS ATENTADOS DE BURGOS Y PALMA NOVA (MALLORCA).-

*Tras la lectura de la moción por Jon Abril se realiza la votación con el siguiente resultado:*
*5 votos a favor: EA, EAJ y ARALAR.*
*4 abstenciones: el resto de concejales y el alcalde.*

*Por ello, se aprueba la moción siendo el texto el siguiente:*

Ante los dos atentados perpetrados por ETA los días 29 y 30 de julio en Burgos y en Mallorca, este último con el resultado de dos personas asesinadas, moción presentada por los grupos municipales de EA, EAJ y Aralar de Bera:

1.- Nuestra condena y reprobación sin paliativos de los dos atentados así como la solidaridad y apoyo en primer lugar con las familias de las dos personas asesinadas, así como con sus allegados y compañeros y con todas las personas afectadas por ambos atentados.

2.- La mayoría social y abertzale de Euskal Herria exige una vez más a ETA el cese definitivo y unilateral de la violencia, sin ningún tipo de condicionamientos ni

contraprestación a cambio.

**Hauxe da zalantzarik gabe Euskal Herriko gizartearen gehiengoaren eskakizuna eta aldarrikapen hau egitean gogoratu nahi dugu horrelako ekintza eta hilketek ez dutela inolako justifikaziorik ez onespenik Euskal Herriaren izenean.**

Esta es la exigencia de la mayoría incontestable de la sociedad vasca, exigencia que hacemos para añadir que atentados y asesinatos como estos no tienen legitimación alguna en nombre del pueblo vasco.

**3.- ETA erakundea sortu zenetik 50 urte bete direnean, gogorarazi behar dugu gizarteak helburu politikoetarako bide político soilen apustua egin duela. Horregatik indarkeriaren erabilera eta bidea eten egin behar da, bertzeak bertze herriaren aginduagatik.**

3.-Cuando se cumplen 50 años de la existencia de ETA, recordarle que la sociedad ha apostado por la vía política para el logro de objetivos políticos: la vía de la violencia debe, por lo tanto, finalizar, entre otras muchas cuestiones, también por mandato social.

**9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN E-BAZPENAK.-**

9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

**1) Bandoak: B17, B18 eta B21/2009.**

**2) Ebazpenak: 2009ko uztailaren 20ko 150. ebazpenetik 2009ko abuztuaren 11ko 165.era arte.**

1) Bandos: B17, B18 y B21/2009.

2) Resoluciones: De la resolución nº 150 de 20 de julio de 2009 a la nº 165 de 11 agosto de 2009.

***"Eskaera eta galderak" puntura pasa baino lehen, gai zerrendatik kanpo 2 mozio sartu nahi dituela adierazi du Alkateak.***

*Antes de pasar al punto de "Ruegos y Preguntas", el Alcalde indica que quiere presentar dos mociones fuera del orden del día.*

***Horrela, gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hauek tratatu dira:***

*De este modo, fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:*

**10.- BERAKO UDALAK JASO BERRI DITUEN AGINDU ETA PRESIO POLIZIALEI BURUZKO MOZIOA.**

10.- MOCIÓN SOBRE LA PRESIÓN Y ORDENES POLICIALES RECIBIDAS RECIENTEMENTE POR EL AYUNTAMIENTO DE BERA.

***Alkateak mozioa irakurri du.***

*El Alcalde procede a la lectura de la moción.*

***Alkateak eta beste hiru zinegotziek aldeko botoa adierazi dute.***

*El Alcalde y los otros 3 concejales manifiestan su voto a favor.*

***Jon Abrilek: Egoera kezkagarria da, elkartasuna beharrezkoa da eta, nabarduraz nabardura, aurkeztutako planteamenduarekin ados dago, beraz, aldeko botoa emanen du.***

*Jon Abril: La situación es preocupante, hay que solidarizarse y, sin entrar en matices, en general está de acuerdo con el planteamiento presentado, por lo que vota a favor.*

***EA eta EAJko zinegotziak abstentzioaren aldea gertu dira.***

*Los concejales de EA y EAJ manifiestan su abstención.*

***Beraz, 5 aldeko boto eta 4 abstentzioekin, aurkeztutako mozioa onartu dute, ondoko testua izanik:***

*Por lo que, con 5 votos a favor y 4 abstenciones, se aprueba la moción, con el siguiente texto:*

## MOZIOA

Azkeneko hilabeteetan Estatu Espainiarrak Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurka abiatu duen oldarraldiak ez du etenik.

Euskal Herriak urte luzez pairatzen duen gatazka politikoaren isla dira euskal preso politikoak, gatazka bizirik dirauela adierazten duen errealitate ukaezina. Euskal Herriko herritarrek elkartasuna maiz adierazi diote kolektibo honi, herrietako kaleetan astero adierazpen honen ahotsak milaka izanik.

Azkeneko asteotan gure herrietako jaietan eta tabernetan Espainiako Segurtasun Indarrak burutzen ari diren inkurtsio armatua kezka handiz ikusten du Udal honek. Oraingoan Udaletxeak eta alkateak daude jo-mugan. Fronte Konstituzionalistaren jazarpena eta bere satelite mediatikoen presioa onartezina da.

Berako Udalak jaso berri dituen agindu eta presio polizialen aurrean, osoko bilkura honek ondorengo akordioak erdiesten ditu:

## AKORDIOAK

**1-** Espainiako Segurtasun Indarrek zein agintari politiko eta judizialek bideratzen duten ekimen errepresibo berri honen aurrean gure ezadostasunik irmoena adierazi nahi dugu. Gure herrian oldartze honen bidegabekeria jaso duten pertsona, kolektibo zein gune fisikoei gure elkartasunik beroena adierazten diegularik.

**2-** Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aldeko elkartasun lana gune ofizialetatik ezabatu nahi den gatazkaren errealitate bat da. Aldiz, elkartasun adierazpena gatazka politikoaren konponbidearen alde egin daitekeen ekarpen handienetakoa delarik.

**3-** Euskal Herri osoko eragile sozial, sindikal eta politikoei gatazkaren konponbidearen alde bidea egiten jarraitzeko deia luzatzen diegu. Gatazka politikoaren ondorioen erabilera

partidista eta arduragabea, gatazka beraren konponbidean aurrera urratsak ematen gainditu daitekeelako soilik.

**4-** Euskal preso politikoen senitarteko eta lagunek, haien senideekiko elkartasun adierazpen oro ezabatu nahian dabiltzan honetan iragaten ariko diren egoeragatik, Udaletxe honek bere hurbiltasuna adierazi nahi die.

**5-** Akordio hau zabaltzeari begira eta herritar guztiei zuzenduta, bando bat editatuko du Udaletxe honek. Aldi berean, akordio hau Nafar Gobernuko instantzia ezberdinei zein komunikabide guztiei helaraziko zaie.

**11.- ANDONI SARASOLA, ALBERTO MATXAIN ETA AITZOL ETXABURU-REN ATXILOKETEI BURUZKO MOZIOA.**

10.- MOCIÓN SOBRE LAS DETENCIONES DE ANDONI SARASOLA, ALBERTO MATXAIN Y AITZOL ETXABURU.

***Alkateak ondoko mozioa irakurri du:***

*El Alcalde lee la siguiente moción:*

Atzoko atxiloketak direla eta behean sinatzen dugunok zera adierazi nahi dugu:

1.- Garbi utzi nahi dugu atxiloketa hauek ez dutela Euskal Herriko gatazka politikoa aterabidean jarriko, alderantziz, gatazka bera, areagotu eta modurik gordinenean azaleratzen dute.

2.- Gatazka politikoaren konponbidea, elkarrizketa eta euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzean datzala adierazi nahi dugu.

3.- Gure kezka adierazi nahi dugu, atxilotuek jasan dezaketen tratuaren aurrean. Ez da ahaztu behar hainbat eta hainbat euskal herritarrek tortura eta tratu txarrak jaso izan dituztela.

4.- Udal honek, atxiloketa hauek salatzeko egingo diren elkarretaratze guztietan parte hartzera deitzen ditu Berako herritar guztiak.

***Jon Abrilek: Atxiloketei buruz kezka sortzen zaio jasotzen ahal diren tratu txarrengatik, beraz, atxilotuen giza eskubideak errespetatu eta bermatu behar diren aldarrikapenarekin baina guztiz ados ez dagoenez mozioaren edukiarekin bere aurkako botoa iragarri du.***

*Jon Abril: Sobre las detenciones le preocupan los malos tratos que puedan sufrir, por ello reclama el respeto y garantía de los derechos humanos de los detenidos, pero, como no está completamente de acuerdo con el contenido de la moción, anuncia su voto en contra.*

***Helena Santesteban zinegotzia orain bertaratu da.***

*La concejal Helena Santesteban se incorpora ahora a la sesión.*

***EA eta EAJko zinegotziak Jon Abrilek eginiko adierazpenarekin bat egin dute.***

*Los concejales de EA y EAJ se adhieren a lo manifestado por Jon Abril.*

***Bozketa egina, 4 aldeko boto eta 6 aurkako-ekin, mozioa ez da onartu.***

*Realizada la votación, con 4 votos a favor y 6 en contra, la moción no se aprueba.*

**12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:10etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:10 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta